

Kostuen egitura

Osasun eta kirol aplikazioaren proiektuak hainbat gastu ditu, eta gure enpresak gastu horiei aurre egin behar die.

Kostu nagusiak honako hauek dira: lehenik, kostu finkoak, hala nola software-garatzailen soldata, hodeiko zerbitzuen kuotak eta aplikazioaren mantentze-lanak, gastu horiek aplikazioa erabiltzen duten pertsona kopuruaren arabera ez baitira aldatzen. Bigarrenik, kostu aldagarriak, erabiltzaile kopuruaren arabera handitu daitezkeenak, adibidez marketin-kanpainak edo premium funtzioen kudeaketa.

Proiektuak eskala-ekonomiak ere aprobeitza ditzake, adibidez zerbitzuak erabilera handitu ahala unitateko kostua jaisten delako.

Era berean, hedapen-ekonomiak kontuan hartzen dira, aplikazioa merkatu berrietara zabaltzean kostuak banatuz eta eraginkortasuna handituz. Azkenik, negozio-ereduaren arabera, prezio baxuak ezarri daitezke erabiltzaile gehiago erakartzeko, edo kalitate altuagoa eskaintzeak kostu handiagoa ekar dezake. Guztira, garapen, edukien sorkuntza, datuen segurtasuna, marketina eta mantentze-lanak dira proiektuaren kostu garrantzitsuenak.

Kostu-mota	Adibideak	Kostua (€)
Kostu finkoak	Software-garatzailen soldata	3.000 € / hilabete
Kostu finkoak	Hodeiko zerbitzuen kuotak	500 € / hilabete
Kostu finkoak	Aplikazioaren mantentzea	300 € / hilabete
Kostu aldagarriak	Marketin-kanpainak	200 € – 1.000 € / kanpaina
Kostu aldagarriak	Premium funtzioen kudeaketa	5 € / erabiltzaile / hilabete
Eskala-ekonomiak	Kostua erabiltzaile gutxirekin	10 € / erabiltzaile
Eskala-ekonomiak	Kostua erabiltzaile askorekin	4 € / erabiltzaile
Hedapen-ekonomiak	Merkatu berrietara zabaltzea	2.000 €
Hedapen-ekonomiak	Lankidetza berriak sortzea	1.000 €
Kalitate vs prezioa	Premium funtzioak	15 € / hilabete
Kalitate vs prezioa	Oinarrizko funtzioak	0 €